

Entrenamenduaren efektuak futbolari gazteen akzio soziomotorrean

Tesiaren egilea: Asier Gonzalez Artetxe

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila

Doktorego-programa: Jarduera Fisikoa eta Kirola

Jakintza-arloa: Hezkuntza

Tesi-zuzendaria: Asier Los Arcos Larumbe

Tesiaren laburpena:

Futbola baloi batez jokatzen den duelu kolektiboa da eta kideek eta, batez ere, aurkariak eragindako ziurgabetasunarengatik bereizten da. Duelu kolektibo oro harremanen, elkarrekintzen, jokoa da. Jokalari artetsuak kideekin elkar ulertu eta aurkariaren intentzioak deskodetzeko gai dira. Akzioa soziomotorra da. Entrenamendu-jardueren diseinua futbolaren barne-logikaren ezaugarri bereizleak manipulatzeko datza, jokalariren jokabidean eragin ditzakeen ondorio praxikoak aintzat hartuz. Futbolariaren adierazpen motor behagarriak, hots, haien portaera, erregistratzea entrenamenduaren efektuak ebaluatzeko azterbidea izan daiteke.

Doktore-tesi honen asmoa hau izan da: libre entrenatzeak eta agindu taktikoen baldintzapean entrenatzeak futbolari gazteen akzio soziomotorrean zer efektu izan dezakeen ebaluatzea, analisi-mailaren arabera: taldea, taldearen lerroak eta norbanakoa (batez beste eta banan-banan).

Ikerketan harrobi bereko 14 eta 16 urtetik beherako 32 gizonezko futbolariak parte hartu zuten, talde bitan banatuta: libreak eta baldintzatuak. Kategoria bakoitzeko talde biak aurrez aurre aritu ziren, zortzi zortziren aurkako hiru partidatan, esku-hartzeak iraun zuen ordu beteko lau saioetan. Jokalari libreek aske eta inolako murrizketa barik jokatu zuten; baldintzatuak, ostera, agindu taktikoak jaso zituzten (gutxieneko hiru ukitu, pasea ez bueltatzea, eta, atzerantz jokatuz gero, hurrengo pasea aurrerantz ematea). Portaera kolektiboaren eta indibidualaren joera zentralerako neurriak eta entropia-neurriak, erregularitasunaren adierazle direnak, talde libreen eta baldintzatuak taldeen arteko partidaren ebaluatu ziren, esku-hartzearen aurretik eta ostean, posizionamendu lokaleko sistemarekin.

Emaitzei erreparaturik, I) talde libreen eta baldintzatuak taldeen portaeraren joera zentralerako neurriak apenas aldatu ziren arren, portaera kolektiboak erregularitasunerantz jo zuen talde baldintzatuak; II) lerroen joera zentralerako neurriak ere kasik ez ziren aldatu eta entrenamenduari zegokion erregularitasun-joerarik ere ez zen agertu azpitaldeetan; eta III) nahiz eta batez besteko emaitzak ia ez aldatu maila indibidualean, banakako analisiak erakutsi zuen esku-hartzeak

futbolari bakoitzari modu zeharo desberdinean eragin ziola. Entrenamenduetan agindu taktikoak ezartzeak portaeraren erregularitasuna bultzatzen dezake, batez ere talde-mailan. Joko librearen, agindu taktikoen edo bestelako esku-hartze estrategien aldeko postura egitea entrenatzaile bakoitzari dagokio. Aukeratzen lagun diezaioke, futbolaren barne-logika manipulaturik, harrobiko jokalarien jokabidean zer efektu lortu dezakeen ezagutzeak bai talde, bai azpitalde, bai banakako mailetan.